



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Herritarrek euskara ikas dezaten laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

Bases reguladoras para la concesión de ayudas para el aprendizaje del euskera.

1. Xedea.

Udalerrian erroldatuta dauden edo herrian bertan lan egiten dutenei (beti ere euren udalerriko bekarik jasotzen ez badute) euskara ikasteko prozesua burutu dezaten laguntza da diru-laguntza hauen xedea.

Laguntzak edozein formatutan (online-presentziala), euskaltegi-akademian (udalerrikoa edo udalerritik kanpoko) eta urteko edozein garaitan ikastaroak diruz laguntzeko dira, matrikula-gastuak murrizteko.

2. Onuradunak.

Laguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1) Soraluze erroldatuta egotea edo herrian bertan lan egitea (beti ere norbere udalerriko bekarik jasotzen ez badu)

2) %75eko gutxienezko asistentzia.

3) Ikastaroaren aprobetxamendu egokia.

3. Laguntzen zenbatekoak eta endosoa.

Laguntzak ezberdinak dira ikastaro motaren eta ikastaro hauek herriko euskaltegian edota herriz kanpoko euskaltegi batean egiten denaren arabera.

Halaber, laguntzen portzentaia desberdina da eskatzailearen errenta-mailaren arabera.

1. Objeto.

El objetivo de las ayudas es facilitar el proceso de aprendizaje del euskera a las personas empadronadas o que trabajan en el municipio.

Las ayudas están destinadas a financiar los cursos en cualquier formato (online-presencial), euskaltegi- academia (del municipio ó de fuera del mismo), y en cualquier época del año, a fin de reducir los gastos de matrícula de los mismos.

2. Personas beneficiarias.

Para beneficiarse de estas ayudas, se deberán cumplir los requisitos siguientes:

1) Estar empadronado o trabajar en la localidad de Soraluze (siempre que no perciba beca de su municipio)

2) Asistencia mínima del 75%.

3) Aprovechamiento adecuado del curso.

3. Cuantía y endoso de la ayudas.

La cuantía de las ayudas varía en función del tipo de curso y de si los mismos se llevan a cabo en el euskaltegi del municipio o no.

Asimismo, el porcentaje de la ayuda varía en función del nivel de renta de la persona solicitante.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Errenta-mailen taula ikastaro mota guztietarako aplikatuko da, hauetarako izan ezik:

- Oinarrizko mailetak A1, A2, B1, C1B2 (16-18).
- Barnetegietako ikastaroak
- Online ikastaroak

La tabla con los niveles de renta se aplicará para todos los cursos excepto para los siguientes:

- Cursos de nivel básico A1, A2, B1 y C1B2 (16-18)
- Cursos en régimen de internado
- Cursos online.

Jarraian, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiliko den taula.

A continuación la tabla que se utilizará para calcular la cuantía de la ayuda.

Laguntzaren onuradunak ENDOSO dokumentua sinatuko du, Udalak zuzenean ordain diezaion matrikula euskaltegiari.

La persona beneficiaria de la ayuda firmará el documento ENDOSO a fin de que el Ayuntamiento abone directamente la matrícula al euskaltegi.

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko errenta mailaren taula

Familia unitatearen kideak	1. Errenta-muga	2. Errenta-muga	3. Errenta-muga	4. Errenta-muga
1	8.871	11.937	13.236	14.826
2	13.306	19.444	22.594	25.308
3	17.742	25.534	30.668	34.352
4	22.177	30.287	36.421	40.796
5	25.726	34.370	40.708	45.598
6	29.274	38.313	43.945	49.224
7	32.822	42.041	47.146	52.810
8	36.371	45.744	50.333	56.380
+1	+3.548	+3.672	+3.181	+3.562

Tabla de los límites de renta para el cálculo de la ayuda

Miembros de la unidad familiar	1º Límite de renta	2º Límite de renta	3º Límite de renta	4º Límite de renta
1	8.871	11.937	13.236	14.826
2	13.306	19.444	22.594	25.308
3	17.742	25.534	30.668	34.352
4	22.177	30.287	36.421	40.796
5	25.726	34.370	40.708	45.598
6	29.274	38.313	43.945	49.224
7	32.822	42.041	47.146	52.810
8	36.371	45.744	50.333	56.380
+1	+3.548	+3.672	+3.181	+3.562



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

3.1. A1, A2, B1 eta C1B2 ikastaroak (16-18 urte) herriko euskaltegian edo herrikoa ez den euskaltegian.

Laguntza matrikularen kostuaren % 100ekoa izango da. Ikasleak ez du inolako kopururik ordaindu beharko.

Beraz, laguntzaren ehunekoa zehazteko EZ dira oinarri hauetan aurreikusitako errenta-muga aplikatuko.

Hala ere, bigarren oinarrian adierazitakoaren arabera, ikasturtea amaitzean % 75eko asistentzia eta aprobetxamendua zuzenean euskaltegiarekin egiaztatuko da, eta betetzen ez bada, onuradunak laguntzaren zenbatekoa Udalari itzuli beharko dio.

Ordu poltsa kopurua (A1 maila lortzeko 720 ordu; A2 maila lortzeko, 880 ordu; eta B1 maila lortzeko, 200-400 ordu, bi azpimailatan banatuta) gainditzen denean, errenta mailaren arabera taula aplikatuko da diru laguntzak esleitzeko.

3.2. B1 (HABEren doakotasun programan sartzen ez bada), B2, C1 eta C2 ikastaroak herriko euskaltegian.

Laguntzak matrikularen edo horren zati baten kostu osoa ordainduko du, errenta-mailen taularen arabera; hala ere, laguntza ezingo da izan 330 orduko moduluaren kostua baino handiagoa (709,5 euro).

Lehenengo errenta-muga: Udalaren laguntza matrikula-gastuaren %100 izango da, ikasleak ez du matrikula-gastuaren zatirik aurreratuko.

Bigarren errenta-muga: Udalaren laguntza matrikula-gastuaren %100a izango da, ikasleak matrikula-gastuaren %25 bere poltsikotik aurreratu beharko

3.1. Cursos A1, A2, B1 y C1B2 (16-18 años) en euskaltegi del municipio ó de fuera del municipio.

La ayuda será del 100% del coste de la matrícula. El alumno/a no tendrá que abonar cantidad alguna.

Por lo tanto, en la determinación del porcentaje de ayuda NO se aplicarán los límites de renta previstos en estas bases.

No obstante, según lo señalado en la base segunda, al finalizar el curso se comprobará la asistencia y aprovechamiento del 75% directamente con el euskaltegi, y en caso de incumplimiento el beneficiario deberá devolver el importe de la ayuda al Ayuntamiento.

Cuando se supere el número de las horas de la bolsa (720 horas para alcanzar el nivel A1, 880 horas para alcanzar el nivel A2 y 200-400 horas para alcanzar el nivel B1, divididas en dos subclases), la asignación de las subvenciones se realizará aplicando la tabla correspondiente al nivel de renta.

3.2. Cursos B1 (si no se incluye en el programa de gratuidad de HABE). B2, C1 y C2 en el euskaltegi local.

La ayuda sufragará la totalidad del coste de la matrícula o parte de la misma según tabla de niveles de renta; no obstante, la ayuda no podrá ser superior al coste del módulo de 330 horas (709,5 euros).

Primer límite de renta: La ayuda será del 100% del coste de la matrícula; el alumno/a no tendrá que adelantar parte de la matrícula.

Segundo límite de renta: La ayuda será del 100% del coste de la matrícula; el alumno/a tendrá que adelantar el 25% de la matrícula de su bolsillo al



SORALUZKEO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

dio euskaltegiari. Gero udalak itzuli egingo dio aurreratutako dirua ikasleari aprobetxamendua egiaztatu ondoren.

Hirugarren errenta-muga: Udalaren laguntza matrikula-gasturen %100a izango da, ikasleak matrikula-gastuaren %50 bere poltsikotik aurreratu beharko dio euskaltegiari. Gero udalak itzuli egingo dio aurreratutako dirua ikasleari aprobetxamendua egiaztatu ondoren.

Laugarren errenta-muga: Udalaren laguntza matrikula-gastuaren %50 izango da, ikasleak matrikula-gastuaren %50 ordainduko du.

Laugarren errenta-mugan dauden biztanle-talde biderkatzaileak (Gurasoak eta dendariak) eta 30 urtez azpiko ikasleen kasuan laguntza matrikula-gastuaren %100 izango da, baina ikasleak matrikula-gastuaren %50 bere poltsikotik aurreratu beharko dio euskaltegiari. Gero udalak itzuli egingo dio aurreratutako dirua ikasleari aprobetxamendua egiaztatu ondoren.

Guraso izaera aitortuko zaio deialdia egiten den urtean zehar 17 urte beteko ez dituen seme-alabaren bat duenari.

Ikasle izaera aitortuko zaio deialdia egiten den urtean zehar 30 urte beteko ez dituenari.

3.3. B1 (HABEren doakotasun programan sartzen ez bada), B2, C1 eta C2 ikastaroak herrikoa ez den euskaltegian.

Udalaren laguntza matrikula-gastuaren %50 izango da 1., 2. eta 3. errenta mugetan eta %25 4. errenta mugan. Hala ere, laguntza ezingo da izan 330 orduko moduluaren kostua baino handiagoa (709,5 euro).

Herriko euskaltegian mailaren bat eskaintzen ez bada, eta kanpoko euskaltegi batera derrigorrez joan behar

euskaltegi. Luego el ayuntamiento devolverá el dinero adelantado al alumno/a tras comprobar el aprovechamiento..

Tercer límite de renta: La ayuda será del 100% del coste de la matrícula; el alumno/a tendrá que adelantar el 50% de la matrícula de su bolsillo al euskaltegi. Luego el ayuntamiento devolverá el dinero adelantado al alumno/a tras comprobar el aprovechamiento..

Cuarto límite de renta: La ayuda será del 50% del coste de la matrícula; el alumno/a tendrá que adelantar el 50% de la matrícula.

En el caso de **lo/as alumno/as considerados grupos de población multiplicadores** (Padres/madres y comerciantes) **que se encuentren en el cuarto límite de renta**, así como de lo/as alumno/as menores de 30 años, la ayuda será del **100%**, y el alumno/a deberá adelantar el 50% del gasto de matrícula de su bolsillo al euskaltegi. Luego el ayuntamiento devolverá el dinero adelantado al alumno/a tras comprobar el aprovechamiento.

Se considerarán padres/madres a lo/as alumnos/as con hijo/as que no cumplan 17 años durante el año de la convocatoria.

Se considerarán estudiantes a los/as alumno/as que no cumplan 30 años durante el año de la convocatoria.

3.3. Cursos B1 (si no se incluye en el programa de gratuidad de HABE), B2, C1 y C2 en euskaltegi de fuera del municipio

La ayuda será del 50% del coste de la matrícula para los límites de renta 1º, 2º y 3º; y del 25% para el límite de renta 4º. no obstante, la ayuda no podrá ser superior al coste del módulo de 330 horas (709,5 euros).

En el caso de que no se ofrezca un nivel en el euskaltegi de la localidad y sea necesario acudir a un euskaltegi



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

izanez gero, errenta mailaren arabera esleikutako da dirulaguntza.

3.4. Barnetegietako ikastaroak

Udalaren laguntza matrikula-gastuaren %50 izango da, errenta-maila edozein delarik ere, 300 euroko gehienezko zenbateko batekin.

3.5. Online ikastaroak (HABEren doakotasun programan sartzen ez bada)

Udalaren laguntza matrikula-gastuaren %50 izango da, errenta-maila edozein delarik ere, 300 euroko gehienezko zenbateko batekin.

4. Prozedura: epea, tokia, aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Epea: Eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra artekoa izango da.

Lekua eta dokumentazioa: Eskaria Soralezeko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko da, horretarako Dirulaguntza eskaera normalizatua behar bezala beteta (Eranskina ikusi), azpian eskatzen den dokumentazioarekin batera aurkeztuko delarik.

- Eskaera-orria, behar den moduan beteta.
- NAN agiriaren kopia.
- Ikaslearen matrikula-fitxa.
- Bizikidetzat-agiria.
- Familia Unitatea osatzen duten kideen 2024. urteko Errenta Aitorpena edo aurkezteko derrigorotasuna ez izatearen ziurtagiria. Agiri hau aurkeztea ez da beharrezkoa 4. errenta-mugan dauden ikasleentzat.
- Familia-liburua (gurasoen kasuan bakarrik)
- Matrikula ordaindu izanaren agiria. (Heretik kanpoko ikastaroen kasuan bakarrik)

externo, la subvención se asignará en función del nivel de renta.

3.4. Cursos en régimen de internado

La ayuda será del 50% de la matrícula, independientemente del nivel de renta, con un tope de 300 euros.

3.5. Cursos online (si no se incluye en el programa de gratuidad de HABE).

La ayuda será del 50% de la matrícula, independientemente del nivel de renta, con un tope de 300 euros.

4. Procedimiento: plazo, lugar, documentación a presentar.

Plazo: el plazo de presentación de las solicitudes será desde el 1 de septiembre de 2026 hasta el 31 de agosto de 2027.

Lugar y documentación: La solicitud se realizará en el Registro General del Ayuntamiento de Soraleze presentado para ello el Impreso de solicitud de subvención normalizado debidamente rellenado (Ver anexo) con la documentación que se requiere en el mismo.

- Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado.
- Copia del DNI o equivalente.
- Ficha de inscripción en el euskategi.
- Certificado de convivencia.
- Declaración de la renta correspondiente al ejercicio 2024 de todos los miembros de la unidad convivencial, o certificado de estar exento de realizar la misma. No es necesario para usuarios cuyos ingresos se encuentran en en 4º tramo de renta.
- Libro de familia (sólo en el caso de padres/madres)
- Documento justificativo de haber abonado la matrícula. (Sólo en caso de cursos realizados fuera del



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

- Euskaltegiak egindako aprobetxamenduari buruzko ziurtagiria. (Heretik kanpoko ikastaroen kasuan bakarrik).

Eskaera aurkeztu ondoren, eskatzaileak baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da.

5. Prozedura eta Ordainketa.

Prozedura: Eskatzailearen eskaerari baiezkoa edo ezezkoa ematea Alkatetza Dekretu bidez erabakiko da.

Ordainketa: Eskaera onartuz gero, Udalak zuzenean ordainduko dio euskaltegiari ikasleak aurreratu behar ez duen zatia.

Ikasleak aurreratutakoa, aldiz, behin ikasturtea amaitutakoan bueltatuko dio Udalak, aprobetxamendua eta asistentzia bete direla baieztatzerakoan.

Soraluze, 2026ko uztailak 09.—Alkatea.

municipio)

- Certificado correspondiente a la asistencia y aprovechamiento expedido por el euskaltegi. (Sólo en caso de cursos realizados fuera del municipio)

Presentada la solicitud, se comprobará que el solicitante cumple los requisitos exigidos.

5. Procedimiento y pago.

Procedimiento: La aprobación o denegación de la solicitud presentada por el solicitante, será resuelta por Decreto de Alcaldía.

Pago: Una vez aprobada la solicitud, el Ayuntamiento abonará directamente al euskaltegi la parte que el alumno o alumna no deba adelantar.

La parte adelantada por el alumno o alumna será reembolsada al interesado/a una vez comprobadas la asistencia y el aprovechamiento.

Soraluze, a 09 de julio de 2026.—El Alcalde.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

HERRITARREI ZUZENDUTAKO EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK
Ayudas económicas para el aprendizaje de euskera

ESKATZAILEAREN DATUAK	
IZEN-ABIZENAK: <i>Nombre y apellidos:</i>	
NAN /DNI:	
	@
HELBIDEA: <i>Dirección</i>	
HERRIA: <i>Municipio</i>	LURRALDEA: <i>Provincia</i>

IKASTAROARI BURUZKO DATUAK
IZENA: <i>Nombre</i>
IKASTURTEA: <i>Curso académico</i>
HASIERA ETA AMAIERA DATAK: <i>Fecha de inicio y finalización</i>
IKASTAROAREN ORDU KOPURUA: <i>Número de horas del curso</i>
ZEIN EUSKALTEGITAN IZAN DA IKASTAROA: <i>Nombre del euskaltegi que ha impartido el curso</i>
MATRIKULAREN ZENBATEKOA: <i>Precio de la matrícula</i>
DIRULAGUNTZA JASOTZEKO KONTU ZENBAKIA: <i>Nº de cuenta para el ingreso de la subvención</i>

Hau sinatzen duenak bere ardurapean haxe aitortzen du:
El/la abajo firmante declara lo siguiente bajo su responsabilidad

- 1.- Deialdian ezartzen diren baldintza guztiak bete eta oinarriak goitik behera onartzen dituela.
Que cumple con las condiciones de la convocatoria y acepta las bases que la regulan.
- 2.- Egunean dituela Soroluzeko udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere.
Que tiene satisfechas todas la obligaciones tributarias con el Ayto. de Soroluze.
- 3.- Ez duela inongo zorrik diru-laguntzak itzuli behar izateagatik.
Que no tiene deudas por subvenciones pendientes de devolución.

Soraluzen, 20 (e)ko .-ren (e)an.
(Izenpea-firma)



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Soraluzeko Udalaren aurrean kobratzeko eskubideen titularrek (Kobrantza-eskubide horien jatorria udalak berak familiei emandako diru-laguntzak direnean, udalaz kanpoko erakunde eta elkarteek antolatutako jardueraz gozatzeko), kobratzeko eskubide horiek laga ahal izango dizkiete diruz lagundutako jarduerak antolatzen dituzten erakunde eta elkarte horiei.

Diru-laguntzaren onuradunak Udalari jakinaraziko dio kobrantza-eskubidearen lagapena, inprimaki hau betez:

Los titulares de derechos de cobro frente al Ayuntamiento de Soraluze-Placencia de las Armas (cuando dichos derechos de cobro tienen su origen en subvenciones otorgadas por el propio ayuntamiento a familias para disfrute de distintas actividades organizadas por organismos y asociaciones externas al ayuntamiento), podrán ceder dichos derechos de cobro a dichos organismos y asociaciones organizadores de las actividades subvencionadas.

La cesión del derecho de cobro será comunicada por el beneficiario de la subvención al ayuntamiento mediante la cumplimentación de este impreso:

DIRU-LAGUNTZA BAT KOBATZKEKO ESKUBIDEAREN LAGAPENA-ENDOSOAREN JAKINARAZPEN
COMUNICACIÓN DE LA CESIÓN-ENDOSO DEL DERECHO DE COBRO DE UNA SUBVENCIÓN

LAGATZAILEA (diru-laguntzaren onuraduna):

TITULAR CEDENTE (Persona beneficiaria de la subvención):

Izena:

Nombre:

Abizenak:

Apellidos:

NAN/AIZ/IFK:

DNI/NIE/ CIF:

PAGO DE SUBVENCIÓN:

Diru-laguntzaren ebazpenaren data:

Fecha resolución subvención:

Espediente zenbakia:

Nº Expediente:

Diruz laguntzen den jarduera:

Actividad subvencionada:

Jardueran parte hartuko duen pertsona:

Persona que participará en la actividad:

Ordaindu beharreko zenbatekoa:

Importe a pagar:

CESIONARIO:

Erakundearen, elkartearen eta abarren izena:

Denominación organismo, asociación, etc...

AIZ/IFK:

CIF/NIF:

Helbidea:

Domicilio:

Bankuaren datuak:

Datos bancarios:

Soraluzenko

Izenpetua,
Lagatzailea.

Firma,
Cedente.



SORALUZEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

DATU PERTSONALEI BURUZKO INFORMAZIO KLAUSULA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO-EDB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorritik, jakinarazten da emandako datuak SORALUZEKO UDALAK tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedienteak kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SORALUZEKO UDALAK duen interes publikoa eta SORALUZEKO UDALARI indarrean dagoen araudiak ematen dizkion eskumenak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen beste Administrazio Publiko bati laga ahal izango zaio araudiak horrela aginduz gero.

Espediente hau izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektronikoa honetara idatziz bidalita (udala@soraluze.eus).

INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCIÓN DE DATOS

De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales («LOPD-GDD»), así como en el Reglamento (UE) 2016/679 General de Protección de Datos del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 («RGPD») y demás normativa aplicable en materia de protección de datos de carácter personal, se informa de que los datos facilitados serán tratados por SORALUZEKO UDALA e incorporados en su Registro de Actividades de Tratamiento.

La finalidad de dicho tratamiento, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación, es gestionar el expediente de la ayuda que se solicita, siendo la base jurídica por la que se tratan los datos personales, el interés público que SORALUZEKO UDALA ostenta en cumplimiento de los fines establecidos por la legislación en vigor.

Dicha información podrá ser cedida a otras Administraciones Públicas por disposición legal.

Los datos serán conservados durante la tramitación de este expediente y durante el plazo legalmente exigible con el objetivo de poder cumplir con las obligaciones legales.

Todas las personas interesadas pueden ejercitar los derechos de rectificación o supresión, limitación del tratamiento, oposición, a la portabilidad de los datos o a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, así como cualesquiera otros previstos en la normativa aplicable de protección de datos, cuando dichos derechos sean aplicables, a través de comunicación escrita a la siguiente dirección de correo electrónico (udala@soraluze.eus).